




Magnitudeekin lan egiten dugunean, denborarekin izan ezik, **sistema hamartarra** erabiltzen dugu. Adibidez:

Litroa 10 aldiz handiagoa da dezilitroa baino, hau da, **litroak 10 dezilitro** ditu. **Dezilitroak 10 zentilitro** ditu eta **zentilitroak 10 mililitro** ditu.

Hori horrela, magnitude **batetik bestera pasatzeko hamarreko saltoak** ematen ditugu. BEGIRA:



Handiagoa den batetik bestera pasatzeko: 2 litro zenbat zentilitro?

1) Zenbatu **zenbat salto** dauden.

Ad: Litrotik zentilitrora 2 salto daude

2) **Salto bakoitzetik bider 10** egin behar da.

2 salto daudenez= BIDER 100
 $2 \times 100 = 200$ orduan $2L = 200cl$

Kopurua zenbaki hamartarra baldin bada (koma duena), salto bakoitzetik koma toki bat eskumara mugituko dugu: $2,53L = 253cl$

Txikiagoa den batetik bestera pasatzeko: 3500 mililitro zenbat litro?

1) Zenbatu **zenbat salto** dauden.

Ad: mililitrotik litrora 3 salto daude

2) **Salto bakoitzetik zati 10** egin behar da.


3 salto daudenez= ZATI 1000
 $3500 : 1000 = 3,5$ orduan $3500ml = 3,5L$

Zatiketa hori egiteko modu azkarrena: **salto bakoitzetik koma toki bat ezkerretara** eramatea da.



Orain zeuk: Pasatu magnitude batetik bestera. Kontuz komarekin!

Koma hau erabili behar duzu: 3,5 HAUEK EZ: 3'5 / 3.5



- | | |
|-----------------------------------|-----------------------------------|
| • 2L = <input type="text"/> dl | • 200dl = <input type="text"/> L |
| • 13L = <input type="text"/> dl | • 35dl = <input type="text"/> L |
| • 8,6L = <input type="text"/> dl | • 40dl = <input type="text"/> L |
| • 4L = <input type="text"/> cl | • 300cl = <input type="text"/> L |
| • 1,5L = <input type="text"/> cl | • 50cl = <input type="text"/> L |
| • 23L = <input type="text"/> cl | • 2000cl = <input type="text"/> L |
| • 1L = <input type="text"/> ml | • 2000ml = <input type="text"/> L |
| • 2,89L = <input type="text"/> ml | • 60ml = <input type="text"/> L |
| • 4,5L = <input type="text"/> ml | • 1550ml = <input type="text"/> L |